Zamudio Udala

www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza, 1. 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622
udala@zamudiokoudala.net

Zamudioko Udala
Ayuntamiento de Zamudio
ERREGISTROA / REGISTRO
2017 UZT. 13
Zkia./Nº 1619
Irteera / Salida

Data/Fecha: 2017/07/13

D. JOSE Mª ZARATE BUSTINZA
Oxinaga Auzoa, 6
48170 - ZAMUDIO (BIZKAIA)

Erref./Ref.: L-06-163-48

Honen bidez Alkatetzaren 2017ko garagarrilaren 12ko Dekretuaren barri emoten deutsut:

2014/10/28ko Alkatetza-Dekretuak, L06-163-048 espedienteari buruz emon zanak, honako hau xedatu eban:

"...
Erabaki da Zarate Bustinza jaunari adieraztea, lehenik, ez zaiola likidatuko emandako obra-lizentzia, ez duelako bete lizentzia horretan ezarritakoa. Bigarrenik, udal-teknikariak eginiko txostenaren kopia bat bidaltzea, jakitun egon dadin eta jasota gera dadin. Hirugarren eta azkenik, eskatzea behar diren jarduketak egin ditzala indarrean dagoen araudia, hau da, hirigintzako araudiaren 81. artikulua betetzeko."

2014/10/6an Udal honetako aparejadoreak txostena emon eban, eta aitatutako udal-ebazpen horretarako aintzat izan zan; txosten horretan, besteak beste, honako hau adierazi zan:

"...
Adierazitakoa gorabehera, txosten hau izenpetzen duenak adierazi behar du trabesak erabilera publikoko bide baten ondoan jarri direla –kontuan izan gabe norena den bidearen titulartasuna–, eta trabes horiek ez dituztela betetzen Zamudioko arau subsidiarioen hirigintza-ordenantzen 81. artikuluan ezarritako baldintzak.
..."

Bide horreri "Uxina"ko bidea deritxe, eta Oxinagan dago, Zamudio udalerrian.

Bide horreri buruz, 2010/05/31ko 213/10 zenbakiko epaian, Bilboko Instrukzioko 7 zenbakiko Epaitegiaren 34/09 zenbakiko prozedura labur-

Por la presente le doy traslado del Decreto de Alcaldía de fecha 12 de julio de 2017:

Mediante Decreto de la Alcaldía de fecha 28/10/2014, dictado en el expediente L06-163-048, se dispone lo siguiente:

"...
Se acuerda requerir al Sr. Zarate Bustinza en primer lugar de que no se va a proceder a liquidar la licencia de obras concedida por incumplimiento de la misma. En segundo lugar, enviarle copia del informe evacuado por el Técnico Municipal, para su conocimiento y constancia. Y en tercer y último lugar, requerirle para que proceda a realizar las actuaciones que correspondan para dar cumplimiento a los términos de la normativa en vigor, esto es el art. 81 de la Normativa Urbanística."

Con fecha 6/10/2014, se había emitido informe por el Aparejador de este Ayuntamiento y que sirvió de base para la resolución municipal antes citada, en el que entre otras circunstancias, se ponía de manifiesto lo siguiente:

"...
No obstante lo expuesto, el que suscribe debe señalar que las traviesas se han colocado junto a un camino de uso público independientemente de la titularidad del mismo, y que dichas traviesas no respetan el condicionado establecido en el art. 81 de la Ordenanza Urbanística de la Normas Subsidiarias de Zamudio.
..."

El camino en cuestión es el conocido como camino de "Uxina", sito en Oxinaga en el término municipal de Zamudio.

En relación a este camino, la Sentencia núm. 213/10 de fecha 31/05/2010, dictada por el Juzgado de lo Penal núm. 3 en la causa 66/10 dima-

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza, 1. 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa. 944030622
udala@zamudiokoudala.net

tutik eratorritako 66/10 auzian Zigor-arloko 3 zenbakiko Epaitegiak emonikoan, honako hau adierazi zen lehenengo oinarri juridikoan:

"... toda vez que no ha quedado en absoluto acreditado que la obra realizada interfiera en un camino público o que era de cierre de finca..."

Aitatutako bide horren izaera juridikoa zalantzan ipini zan, hortaz.

Epai horretan bidearen izaera zalantzan jarri dala aintzat izanda eta gerora izan diran beste jarduketa batzuk aintzat izanda, izaera juridiko hori zehatz-mehatz zehaztu beharra dago, eta horrek L-06-163-048 espedientean 2014/10/28an emoniko Dekretu horren edukia indargabetzea dakar, aitatutako bide horren izaera publikoa nabarmendu zalako bertan; hori guztia zuzentasun materialaren irizpideari jarraituz egin behar da.

Bide horren izaera juridikoa egiaztatzeko, Udal honek Toki-Erakundeen Ondasunen Araudiko 45. artikuluan eta hurrengoetan araututako jardunbidea dauka, Udal-Administrazioaren eskubideen artean ikertzeko ahala dago eta.

Jarduteko modu hori, beharrezkoa izanik, kontraesanean dago 2014/10/28ko Dekretuaren edukiagaz, segurtasun juridikoaren irizpidea aplikatu ezkero, besteak beste; izan be, ez litzateke egokia izango ebazpen hori betearazotea, Ondasunen Araudian aurreikusitako ikerketa-espedientea tramitazioan dagoan bitartean.

Kontraesan hori saihestu eta segurtasun juridikoaren irizpidea sendotzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 107. artikuluak hauxe xedatzen dau:

"Administrazio publikoek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dituzte interesdunen alde eman diren egintzak, deuseztagarriak baldin badira 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurrez interes publikorako kaltegarri deklaratuta."

nante del Procedimiento Abreviado núm. 34/09 del Juzgado de Instrucción núm. 7 de los de Bilbao en su Fundamento Jurídico Primero se decía lo siguiente:

"... toda vez que no ha quedado en absoluto acreditado que la obra realizada interfiera en un camino público o que era de cierre de finca..."

Cuestionándose de esta manera la naturaleza jurídica del citado camino.

Atendiendo al cuestionamiento que se hace en dicha Sentencia sobre la naturaleza del camino y otras actuaciones posteriores hacen necesario la concreta precisión de dicha naturaleza jurídica, lo que supone dejar sin efecto el contenido del mencionado Decreto del 28/10/2014 dictado en el expediente L-06-163-048, donde se prioriza la naturaleza pública del citado camino; todo ello en atención al principio de justicia material.

Para la verificación de la naturaleza jurídica del camino en cuestión, este Ayuntamiento dispone del mecanismo regulado en los art. 45 y ss del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales en cuanto recogen entre las prerrogativas de la Administración Municipal, la de la Potestad Investigadora.

Tal proceder, necesario por otra parte, resulta contradictorio con el contenido del Decreto del 28/10/2014, por aplicación, de entre otros, del principio de seguridad jurídica, ya que no resultaría adecuado dar rienda a la ejecutividad de dicha resolución en tanto en cuanto se está tramitando el expediente de investigación previsto en el Reglamento de Bienes.

Para evitar esta contradicción y así afianzar el principio de seguridad jurídica, el art. 107 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre establece que:

"Las Administraciones Públicas podrán impugnar ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo los actos favorables para los interesados que sean anulables conforme a lo dispuesto en el artículo 48, previa su declaración de lesividad para el interés público."

Zamudio
Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza, 1. 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622
udala@zamudiokoudala.net

Aitatutako dekretu horrek betetzen ditu helburu horretarako ezarritako eskakizunak, kaltegarritzat jotzeko 107. artikulu horretako 2 zenbakian preklusio-epetzat eskatzen diran 4 urteak igaro ez diralako; dana dala, Udalak Dekretu hori administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean inpugnazioa aurkezten danean amaituko da epe hori.

El Decreto en cuestión cumple los requisitos exigidos para tal fin, ya que no han transcurrido los 4 años que como plazo preclusivo exige el apartado 2 del citado art. 107 en orden a la declaración de lesividad, el cual en todo caso finalizará con la impugnación por parte del Ayuntamiento del referido Decreto ante la jurisdicción contencioso-administrativa.

Arterago adierazi dan guztiaren arabera, honako hau ebatzi da:

De cuanto antecede se resuelve:

LEHENENGOA.- Ikertzeko espedientea hastea, udalerrian "Oxinaga"n dagoan "Uxina" deritxen bidearen izaera juridikoa eta udal-titulartasuna zehazteko. Hori guztia, Ondasunen Araudiaren 45. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz.

PRIMERA.- Incoar Expediente de Investigación del denominado camino "Uxina" en el lugar denominado "Oxinaga" de este municipio, en orden a concretar su naturaleza pública y su titularidad municipal. Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los art. 45 y ss del Reglamento de Bienes.

BIGARRENA.- Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 107. artikuluan xedatutakoaren arabera, L-06-163-048 espedientean emoniko 2014/10/28ko Dekretua interes publikorako kaltegarritzat jotzeko deklarazioaren prozedurari hasiera emotea, Dekretuaren xedapen-zatia idazki honen hasieran aitatuta dagoala, gero administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren aurrean inpugnatzeari ekiteko, aitatutako artikuluan horretarako ezarrita dagoan prozedurari jarraituz deuseztatzeko demandan.

SEGUNDA.- Incoar de conformidad con lo dispuesto en el art. 107 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, el Procedimiento de Declaración de Lesividad para el Interés Público del Decreto de fecha 28/10/2014 dictado en el expediente L-06-163-048 cuya parte dispositiva se ha citado al comienzo de este escrito, a fin de proceder a su ulterior impugnación ante la jurisdicción contencioso-administrativa en demanda de su anulación siguiendo el procedimiento establecido al efecto en el citado artículo.

HIRUGARRENA.- Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 108. artikuluaren arabera, L-06-163-048 espedientean emoniko 2014/10/28ko Dekretuaren betearazpena etetea, kaltegarritasun-deklarazioaren espedientea bideratzen dan bitartean, kalte konponezinak edo konpontzen gaitzak diranak saihesteko.

TERCERA.- De conformidad con el art. 108 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, suspender la ejecutoriedad del Decreto de fecha 28/10/2014 dictado en el expediente L-06-163-048, en tanto en cuanto se tramita el expediente de Declaración de Lesividad en orden a evitar perjuicios de imposible o difícil reparación.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen barri emotea interesdun ager daitekezan guztiei.

CUARTO.- Notificar esta resolución a todos aquellos que puedan aparecer como interesados.

**Zamudion, 2017ko garagarrilaren 13an /** En Zamudio, a 13 de julio de 2017

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA /** EL SECRETARIO ACCIDENTAL
Asier Amarika Zarate

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza, 1. 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622
udala@zamudiokoudala.net

Zamudioko Udala
Ayuntamiento de Zamudio
ERREGISTROA / REGISTRO
2017 UZT. - 7
Zkia./Nº 1598
Irteera / Salida

JOSE MARIA ZARATE BUSTINZA
Oxinaga Auzoa 6
48170-ZAMUDIO.- (BIZKAIA)

Data / Fecha: 2017/07/05

Erref. / Ref.:

Udala datuak eta informazioa batzen dabil, etxebizitzetara eta ustiapenetara sartzeko Oxinaga auzoan erabiltzen dan bideari buruz.

Ikerketa-lan horreek egiteko beharrezkoak diran datuen artean, bideak mugakide daukazan lursailen titulartasuna zehaztu beharra dago.

Katastroko datuen arabera, bideak mugakide daukazan lursailetatik zeure izenean ageri diranak honeexek dira:

| POLIGONOA | LURZATIA |
|---|---|
| 5 | 73 |
| 5 | 159 |

Hori dala eta erregutu egiten deutsut Udal honeri emon deiozun bide hori mugakide daukan lursaila edo lursailak ageri diran eskrituren kopia; kopia udaletxean bertan atera daiteke.

Aitatutako lanok zuzen egiteko zure laguntasuna izango dogulakoan, begirunez agurtzen zaitut.

El Ayuntamiento está recopilando datos e información en relación con el camino que discurre por el Barrio de Oxinaga, y que sirve para dar acceso a las distintas viviendas y explotaciones que en el mismo se ubican.

Uno de los datos necesarios para poder realizar los trabajos de investigación citados es la de determinar la titularidad de las fincas colindantes al camino.

Según los datos catastrales las fincas de su titularidad que limitan con el camino son las siguientes:

| POLIGONO | PARCELA |
|---|---|
| 5 | 73 |
| 5 | 159 |

A tal efecto le ruego que facilite a este Ayuntamiento una fotocopia (la cual se podía realizar en el Ayuntamiento) de las escrituras donde figure la finca o fincas que lindan con el citado camino.

Contando con su colaboración para la correcta ejecución de los trabajos indicados, aprovecho para enviarle un cordial saludo.

**Zamudion, 2017ko garagarrilaren 5ean/** En Zamudio, a 5 de julio de 2017

ZAMUDIOKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO

ALKATEA/ EL ALCALDE
Igotz López Torre